

Vertigorock jaialdia Ermuan urriaren 6an

Urriaren 6an, 20:30etatik aurrera, Vertigorock jaialdiaren lehenengo edizioa izango da Ermuko Orbe Kardinalaren plazan. Zarauzko Kauta, Madrilgo Censurados, Asturiasko Mala Reputación, eta Ermuko LPC eta Insohmnio taldeak protagonista aurtengo festan.

Ermuko musika talde ezberdinetako partaide batzuen ideia izan da kontzetua antolatzea. "Sasoi batean Aritzemendi pilotalekuan egiten ziren horrelako jaialdiak eta gogoia geneukan Ermuan ekimen hori berreskuratzeko edo antzerako zerbait egiteko. Halaber, inguruko herrietan horrelako kontzertuak egiten direlako eta Ermuan hutsunea nabaritzen dugulako, hori dela eta, beti mugitzen ibili behar gara horrelako taldeak ikusteko", azaldu dute antolatzaileek. Horrela, ekainean hasi eta hiru hilabetetan "nahi baino maila apalagoan" antolatu dute lehenengo edizio hau.

Etorkizunean ekitaldi gehiago

Hasieran egun osoan herriko gune ezberdinetan hainbat ekitaldi egitea pentsatu zuten, baina denbora falta zela eta, 5 taldeekin iluntzean hasi eta gauera bitarteko kontzertua prestatzea lortu dute. Horretarako, udalean diru-laguntza eskatu zuten eta Ermuko Udaleko Kultura Sailak proiektuan sinistuta, dirua eman eta lanari ekin zioten. Kontzertuan Ermuko taldeak arituko dira, ekimenaren helburretako bat, Ermuko musika taldeak sustatzea delako.

Kontzertuarekin batera, plazan



txosna bat jarriko da eta taldeek materiala salgai egongo da postu ezberdinetan.

Antolatzaileek, ekimen honek jarraipena izatea espero dute, "beti ere aurtengoak duen emaitza eta arrakasta ikusita", argitzen dute, eta urte gutxiren buruan, inguruko herrietan erreferente bilakatzea gustatuko litzaieke. Datorren urtean data aldatuko dela aurreratu dute, aurtur ezinezkoa izan delako lehenago egitea, baina hurrengo edizioetan ekaina edo uztailean ekitaldi gehiagorekin batera egitea aurreikusten dute.

Ekimena prestatzeko denbora gutxi izan dute eta antolatzaileek ez dute astirik izan jende askori laguntza eskatzeko, baina euren esanetan, "herriko jende eta talde guztiei zabalik dagoen ekimena da eta edozeinek har dezake parte, antolaketan, kontzertu egunean txosnan txandak egiten, aholkuak ematen... Finean, zenbat eta herriko jende eta talde gehiagok parte hartu, orduan eta aberasgarriagoa izango da". Antolatzaileekin harremanetan jartzeko, 616 58 90 49 telefonora deitu daiteke edo vertigorockinfo@gmail.com helbidera idatzi.

Alazne Aiestaran



ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOA

EGaña
ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

ALBOKA

MUSIKA
ESKOLA

- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardino
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoiaia musikala
- Klarineteta
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeteta
- Txistua

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com